


OSO GARRANTZITSUA!!!
MESEDEZ, EZ BEGIRATU
EDO/ETA IRAKURRI
MATERIAL HAU LUIXAK
ESAN ARTE.
MILA ESKER!!!



Kaixo!

1. Sute batek kixkalita utzi du Granadako Errege Katolikoek monumentua. Hori gutxi ez eta bi suhiltzaile, mediku bat eta hiru emakume zauritu dira sutearen ondorioz.
2. Aurten betetzen dira 50 urte gizona ilargira iritsi zenetik eta ospakizun ugari izango da mundu osoan.

EUSKAL HERRIRA ETORRITA...

1. Atzo izan ziren hauteskundeetan, Iñigo Ikuilu lehendakaria emaztearekin joan zen bozkatzera.
2. Egungo gazteen artean ohikoak izaten dira kale-edana, nesketan ibiltzea eta antzeko jarduerak, baina ez dira horiek aisialdia pasatzeko jarduera bakarrak. Donostian egiten ari diren "*Aukera ezak hire hobya!*" kongresuan, horietako asko ezagutzeko aukera izango duzue. Besteak beste, modarekin zerikusia dutenak emakumezkoentzat eta gizonezkoentzat, berriz, akziozkoak.

ETA KIROLETAN...

1. Sopelan egin den Euskal Herriko Surf txapelketan, Mikel Azurmendi kirolari indartsua izan da irabazlea gizonen kategorian eta neskenean, berriz, Miren Alkiza andereño ederra.
2. Futbolari dagokionez, jaun eta jabe izan ziren Errealeko neskek atzo Madrilen jokatu zen futbol-partidan, etxekoei 0 eta 2 irabazita.

Oraingoz besterik ez. Eskerrik asko zuen arretagatik eta gero arte!